# MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

## 2019-20



# ZERBITZU KARTA

# CARTA DE SERVICIOS

donostiaeskola.eus

DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

2018
KUDEAKETA AURRERATUARI
DIPLOMA
A LA GESTIÓN AVANZADA

01.

# AURKEZPENA
# PRESENTACIÓN



Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak Zerbitzu Karta hau egiten du herritarrei ezagutzera emateko eskaintzen dituen zerbitzuak, bere gain hartzen dituen kalitate konpromisoak eta erabiltzaileei dagozkien eskubideak. Helburuak hauek dira: egunetik egunera hobetzea herritarrei ematen dizkien zerbitzuen eta informazioaren kalitatea eta kudeaketaren gardentasuna, eta baliabideak eskaintzea erabiltzaileek parte har dezaten.

La Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián elabora esta Carta de Servicios para dar a conocer a la ciudadanía los servicios que presta, los compromisos de calidad que asume, así como los derechos que asisten a las personas usuarias. Todo ello con el objetivo de alcanzar día a día mayores niveles de calidad en los servicios que presta, la información que ofrece a la ciudadanía, la transparencia en su gestión y facilitar elementos de participación a sus personas usuarias.

## XEDEA

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak musikaren eta dantzaren arloetan dagoen eskari sozialari erantzuna ematea du xede, hainbat espezialitatetan adin guztietako pertsonei bideratutako irakaskuntza ez-arautua eskainiz.

## IKUSPEGIA

Donostiako hiriaren bizitza kalitateari ekarpena egingo dion erakundea izan nahi dugu, gure ikasleen hezkuntzaren eta kulturan parte hartze aktiboaren bidez. Horretarako, kalitatezko irakaskuntza eta kudeaketa garatuko duten langile motibatu eta kualifikatuak izango ditugu, herritarrekiko eta hiriaren zenbait eragilerekiko inplikazioa sortzeko gai direnak.

## BALIOAK

**Balioetan oinarritutako heziketa:** Lan teknikoan bakarrik zentratuta ez dagoen irakaskuntza da, hau da, erakundearen eta bere kideen ereduari jarraituz, errespetua, elkarrizketa, elkartasuna, tolerantzia, justizia, pentsamendu kritikoa, identitate kulturalaren defentsa, talde lana... diren balio etiko eta gizabidezkoen alde egiten duena.

### LANA

Ahalegina, ikastea, autonomia eta norberaren hobetzea.

### SORMENA

Irakaskuntzaren eta langile guztien jardunaren oinarri.

### ERANTZUKIZUNA

Efizientzia eta gardentasuna kudeaketan, enpleguaren kalitatearekin bat datorren langileen profesionaltasuna. Ingurumena babestea, gizarteratzea.

### KONFIANTZA

Gure ikasle, familia eta kolaboratzaileekin elkarrekiko konpromisoa.

### PARTE HARTZEA

Barne funtzionamenduan talde lana sustatuz eta proposamenei era arduratsu eta egiazkoan erantzuna emanez. Jendarteari begira parte hartuz eta bizitza sozial eta kulturalean ikasleen inplikazioa bultzatuz.

### ELKARLANA

Sektore publiko osoarekin, musika eta dantzako ikastetxeekin eta elkarte eta erakundeekin.

### BERRIKUNTZA

Irakaskuntza eta kudeaketa alorretan.

## MISIÓN:

La Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián tiene por objeto dar respuesta a la demanda social de formación en los ámbitos de la música y la danza ofreciendo enseñanza no reglada en múltiples especialidades a personas de todas las edades.

## VISIÓN:

Aportar calidad de vida a la ciudadanía de Donostia / San Sebastián mediante la educación de nuestro alumnado y la participación cultural activa. Para ello, contamos con personal motivado y cualificado que desarrolla una enseñanza y gestión de calidad, con capacidad dinamizadora para generar implicación con la ciudadanía y los diferentes agentes de la ciudad.

## VALORES:

**Formación basada en valores:** Una enseñanza no centrada sólo en la ejecución técnica, sino promotora, a través del ejemplo de la institución y sus miembros, de valores éticos y cívicos: respeto, diálogo, solidaridad, tolerancia, justicia, pensamiento crítico, defensa de la identidad cultural, trabajo en equipo, coeducación...

### TRABAJO:

Esfuerzo, estudio, autonomía y superación personal.

### CREATIVIDAD:

Como base de la enseñanza y la labor de todo el personal.

### RESPONSABILIDAD:

Eficiencia y transparencia en la gestión, profesionalidad del personal correspondido con calidad en su empleo. Cuidado del medio ambiente, inclusión social.

### CONFIANZA:

Compromiso recíproco con nuestro alumnado, familias y colaboradores.

### PARTICIPACIÓN:

Potenciando el trabajo en equipo y dando respuesta a las propuestas de manera responsable y sincera en el funcionamiento interno. De cara a la sociedad, tomando parte e impulsando la implicación del alumnado en la vida social y cultural.

### COLABORACIÓN:

Con todo el Sector Público, con centros de enseñanza general y especializada en música y danza, así como con asociaciones e instituciones.

### INNOVACIÓN:

En el ámbito educativo y en la gestión.

# 02.
# ZERBITZUEN ZERRENDA
# RELACIÓN DE SERVICIOS



## 02. 01.
## IRAKASKUNTZA / ENSEÑANZA

### 02. 01. A
### MUSIKA GUZTIONTZAT / MÚSICA PARA TODOS/AS

**I Maila (0-7 urteko ikasleak)**

**1. Musika Hezkuntza Goiztiarra (0-2 urte)**
Garapen holistikoa (emozionala, fisikoa, kognitiboa eta soziala) du helburu, horretarako musikaz baliatuz. Musika da, alde batetik, helburu, eta, bestetik, garapen pertsonalerako bidea.

Musika saioetan, guraso edo familiako baten partaidetza beharrezkoa da. Haurtxo bakoitza nagusi baten ardurapean egon behar da.

**2. Musika eta Mugimendua (3-5 urte)**
Haurraren garapen integrala, musika bizituz, sentituz, gozatuz, hausnartuz, partekatuz... Metodologia: Aktiboa, eta bizipena ardatz duena.

**3. Musika Tailerra (6-7 urte)**
Alderdi kognitiboaren heldutasun maila kontuan hartuta, eduki eta gaitasunetan sakontzea. Kontaktu eta Orientazioaren bidez instrumentuak ezagutzea. Metodologia: Aktiboa, eta bizipena ardatz duena.

**Nivel I (alumnado entre 0 y 7 años)**

**1. Educación Musical Temprana (0-2 años)**
Tiene como objetivo el desarrollo holístico (emocional, físico, cognitivo y social), a través de la música. Música como objetivo, trabajando contenidos musicales y Música como camino, buscando el desarrollo personal.

En las sesiones musicales, se requiere la participación de padres/madres o algún miembro de la familia, y cada alumno/a menor deberá estar acompañado/a de una persona mayor.

**2. Música y movimiento (3-5 años)**
Desarrollo integral del niño o de la niña, incidiendo en la experiencia, en el disfrute, en la reflexión y en la compartición de la música... Metodología: activa, cuyo eje principal será la experiencia musical.

**3. Taller de Música (6-7 años)**
Tomando en consideración la madurez cognitiva, profundizar en los contenidos y capacidades. Conocer los diversos instrumentos mediante el contacto-orientación.

## Musika Proiektuak
## (8-99 urteko ikasleak)

Gaitasun musikala, gorputzaren, ahotsaren eta beste baliabideen bidez garatzea izango da helburua; sormena eta talde lana ardatz hartu, eta, ahal den neurrian esparru ezberdinetara egokitzea.

## Musika Kultura Helduentzat

Musikaren historia entzunaldien bidez errepasatzea, aro eta estilo desberdinetako berezitasun musikalak aztertuz. Ikuspuntu praktiko batetik gaur egungo musika nola antolatzen den ulertzea, eta Euskal Herriko eta bereziki Donostiako herri musika ezagutzea.

## Emanaldi Pedagogikoak
## (4-99 urteko ikasleak)

Irakasgai honen helburua da musika arloan trebatzea, musika tresnak, horien taldeak eta estiloak landuz, era aktibo eta parte hartzailean, entzunaldien bitartez, praktika instrumentala sustatzeko eta Eskola definitzen duten balioak indartzeko.



## Plus 55 Jarduerak

Plus 55 programak hiriko eskaintzari buruzko informazioa ematen du, eta Donostiako adinekoen proposamenak ere jasotzen ditu. Gainera, eskueran jartzen ditu proposamen horiek bideratzeko, antolatzeko eta bultzatzeko behar diren baliabideak. Horren bidez, adinekoen presentzia eta parte hartzea indartu nahi dugu, ezinbestekoa iruditzen baitzaigu hori gizarte aberats, askotariko eta eraikitzaile bat sortzeko.

Hori dena kultur etxeetan antolatzen dugu, eta baita hemen bertan ere, Udalaren Musika Eskolan. Besteak beste, hemen jartzen ditugu martxan Musikala (musikaletako koreografiak), Batukada, Zarzuela, Erritmoa Naiz eta bestelako jarduerak.

## Udaleku musikalak oporraldietan

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskola "Musikoporrak" ekimenaren egoitza da, 3 urtetik 12 urtera bitarteko haurrentzat zuzenduta dauden musika tailerrak. Tailer hauek oporraldietan ematen dira partaideak musikara hurbiltzeko helburuarekin.

## Jardunaldiak, ikastaroak eta tailerrak

Iraunkorrak ez diren hezkuntza jarduerak: jardunaldi, ikastaro edo tailer formatuan, musika eta dantzarekin lotura duten gai espezifikoen inguruan.



## Proyectos Musicales
## (alumnado entre 8-99 años)

Tendrá como objetivo desarrollar las capacidades musicales a través de la voz, el cuerpo y otros recursos en los que la creatividad y el trabajo en grupo adecuándolo a diferentes contextos en la medida de lo posible.

## Cultura musical para personas adultas

Repasar la historia de la música, analizando curiosidades musicales de estilos y épocas diferentes. Desde una perspectiva práctica, entender como se organiza la música actual y conocer la música popular de Euskal Herria, especialmente la de Donostia/San Sebastián.

## Actuaciones Pedagógicas
## (alumnado entre 4-99 años)

Esta asignatura tiene por objetivo el de formar en el ámbito de la música, haciendo hincapié de forma activa y participativa a través de la audición los diversos instrumentos, agrupaciones y estilos, para promover la práctica instrumental y reforzar los valores que definen a la Escuela.

## Actividades +55

Plus 55 ofrece información sobre la oferta existente en la ciudad y recoge todas aquellas propuestas de las personas mayores de Donostia poniendo a disposición los recursos necesarios para encaminarlas, organizarlas e incluso liderarlas. A través de estos medios buscamos potenciar la presencia y participación de los mayores como punto indispensable para una sociedad rica, diversa y constructiva.

Los lugares desde donde organizamos son los centros culturales y este mismo, la Escuela Municipal de Música, donde ponemos en marcha actividades como Musical (coreografías de musicales), Batucada, Zarzuela, Soy ritmo etc..

## Colonias musicales en períodos vacacionales

La Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián es sede de "Musikoporrak", talleres musicales destinados a niños y niñas entre 3 y 12 años. Estos talleres se llevan a cabo en períodos vacacionales con el fin de acercar la música a sus participantes.

## Jornadas, cursillos y talleres

Actividades de formación de carácter no permanente, sobre temas específicos relacionados con la música y la danza, en forma de jornadas, cursillos o talleres

**02.** 01. B

# INSTRUMENTU ETA KANTU ESKOLAK / CLASES DE INSTRUMENTOS Y CANTO

## Instrumentu eskaintza / Oferta instrumental




## Instrumentu plus

Instrumentu eskola kolektiboa: instrumentuarekin lotutako gaitasunaren garapena lantzeaz gain, egokiro ikasteko ezinbestekoak diren musika hizkuntzaren edukiak irakatsiko dira.

## Instrumentu praktika

Espezialitateko irakasleek gidatutako instrumentu praktikarekin jarraitu nahi duten pertsonentzat.

## Bakarkako Kantua

(16 urtetik gorakoentzat, adin mugarik gabe)

Ahots teknika eta errepertorioa ezagutzea, musikarekiko sentiberatasuna eta gustua garatzea modu atsegingarri eta hezigarrian ahotsaren bitartez.

Ahotsaren mekanika, aukera teknikoak ezagutu, garatu eta finkatzea, interpretazioa, oroimena, arnasketa, erlaxazioa, sormena...

## Irakasgai osagarriak

### Musika Hizkuntza

(8 urtetik gorakoentzat, adin mugarik gabe)

Instrumentu, Dantza, Koru eta Kantu espezialitateen helburuak garatzeko prestakuntza teoriko-praktiko osagarria.



## Harmonia eta Moldaketen Hastapenak

Harmoniaren oinarri teorikoak ezagutzea eta harmonizazio praktika bat egitea, lantzen ari den maila teorikoari dagokiona. Musika modernoko instrumentu talde baterako egin beharreko moldaketen oinarriak ezagutzea.

## Musika Informatikako Tailerrak

14 urtetik gorakoentzat, adin mugarik gabe. Ikastaroak batez ere praktikoak izango dira. Bakarkako egitasmoak antolatuko dira lan ildo orokor baten barruan.

## Ikasketa arautuetarako sarbidea:

- Ikasketa profesionaletarako sarbidea
- MUSIKENE Jazz-erako sarbidea
- MUSIKENE Pedagogia/interpretazio klasikorako sarbidea

## Beste batzuk. Urtero berrikusi egingo da.

## Jarduera osagarriak

Egun bateko edo gehiagoko irtenaldiak, trukeak beste zentro edo elkarte batzuekin, kontzertu eta emanaldi publikoak, kontzertu eta ikuskizunetara joatea, tailerretan edo maisu eskoletan parte hartzea eta abar.

## Instrumento plus

Clase colectiva de instrumento en el que además de trabajar el desarrollo de la capacidad instrumental, se mostrarán los contenidos de lenguaje musical imprescindibles para un correcto aprendizaje.

## Práctica instrumental

Aquellas personas que deseen seguir con una práctica instrumental guiada por el profesorado de la especialidad

## Canto solista

(desde los 16 años, sin límite de edad)

Conocer el repertorio y la técnica vocal, desarrollar la sensibilidad y el gusto por la música de forma amena a la vez que instructiva a través de la voz.

Mecánica de la voz, conocimiento, desarrollo y afianzamiento de las posibilidades técnicas, interpretación, memoria, respiración, relajación, creatividad...

## Asignaturas complementarias

### Lenguaje Musical

(desde los 8 años, sin límite de edad)
Formación teórico-práctica complementaria para el desarrollo de los objetivos de las especialidades instrumentales, danza, coro y canto.

### Armonía e Iniciación a los arreglos

Conocer los fundamentos teóricos de la armonía y realizar una práctica de armonización correspondiente al nivel teórico estudiado. Conocer los fundamentos de los arreglos para una formación instrumental de música moderna.

### Talleres de Informática Musical

Desde los 14 años sin límite de edad. Los cursos serán eminentemente prácticos creando proyectos individualizados dentro de un esquema general de trabajo.

### Acceso a enseñanzas regladas:

- Acceso a las enseñanza profesionales
- Acceso a MUSIKENE Jazz
- Acceso a MUSIKENE Pedagogía / Interpretación clásica

### Otras que anualmente serán revisadas:

## Actividades complementarias

Salidas de uno o varios días, intercambios con otros centros o agrupaciones, conciertos y actuaciones públicas, asistencia a conciertos o espectáculos, participación en talleres o masterclasses, etc.

## Taldeak Conjuntos

- Orkestrak.
- Kamerata.
- Bandak.
- Koroak.
- Big Banda.
- Txaranga.
- Gitarra orkestra.
- Txistu taldea.
- Trikiti taldea.
- Akordeoi taldea.
- Klarinete ensenblea.
- Perkusio taldea.
- Piano taldea.
- Ganbera musikako taldeak
- Musika modernoko Comboak / Combos de Música Moderna
- Folk taldea
- Bestelako taldeak / Otros grupos



02. 01. B

# DANTZA / DANZA

## Dantzaren hastapena

Gaitasun psikomotrizezkoa garatzea, bere mugimenduak adieraztea, harremanak eta mugimenduak elkarrekin konbinatzeko gaitasuna, musikaltasunez eta inguruko espazioan izatea.

## Dantza Klasikoa

Dantza klasikoko eskolei esker, ikasleek jarrera egokia hartzen ikasiko dute, eta elastikotasuna eta muskulu lanketa orekatua lortuko dituzte; halaber, memoria landuko dute, konfiantza eta autoestimua eskuratu, taldean elkarreragiten ikasi, koordinazioa hobetu, mugimenduen arintasuna eta oreka landu eta abar.

Eskola saioetan, lurrean, barran eta zentroan egiteko ariketak lantzen dira, eta, besteak beste, adagio, jauziak, piruetak eta aldakuntza txikiak biltzen dituzte. Ikastaro aurreratuagoetan, puntak eta errepertorio klasikoa ikasten dira.

## Dantza Garaikidea

Gorputz tekniken lanketa, mugimendu kontrola eta gorputz adierazpena garatzeko.

Zoru eta desplazamendu ariketak, koreografiak sortzea eta inprobisazio eta konposizio lanak egiten dira.

## Euskal Dantza

Beroketa ariketak egitea, barran, lurrean eta zentroan, gorputza prestatzeko Euskal Herriko dantza tradizional desberdinak eta askotarikoak ikasteko.

## Dantza (espezialitaterik gabe)

Dantza eskolen bitartez, hainbat ariketa egiten dira: beroketa, jarrera ona hartzea, elastikotasuna, muskulu lan orekatua, autoestimua irabaztea, mugimenduen arintasuna eta oreka, guztia ere askotariko hainbat dantza ikasita.

## Jarduera osagarriak

Egun bateko edo gehiagoko irtenaldiak, trukeak beste zentro edo elkarte batzuekin, kontzertu eta emanaldi publikoak, kontzertu eta ikuskizunetara joatea, tailerretan edo maisu eskoletan parte hartzea eta abar.



## Iniciación a la Danza

Desarrollar la capacidad psicomotríz, así como su capacidad de expresarse, relacionarse y combinar sus movimientos armoniosamente con musicalidad y en el espacio que le rodea.

## Danza Clásica

Las clases de danza clásica dotan al alumnado de una buena colocación postural, de elasticidad, de un trabajo muscular equilibrado, ayudan a ejercitar la memoria, a ganar autoestima, confianza, a interactuar en grupo, a mejorar la coordinación, la agilidad de movimientos y el equilibrio.

La clases se estructuran trabajando ejercicios en el suelo, barra y centro que incluye ejercicios de adagio, saltos, piruetas y pequeñas variaciones. En los cursos más avanzados se estudia puntas y repertorio clásico.

## Danza Contemporánea

Estudio de técnicas corporales para el desarrollo del control del movimiento y de la expresión corporal.

Incluye ejercicios de suelo y de desplazamiento, generación de coreografías y trabajo en improvisación y composición.

## Euskal Dantza

Realizar ejercicios de calentamiento en barra, suelo y centro con el objeto de preparar el cuerpo para el aprendizaje de diferentes y variadas danzas tradicionales de todo Euskal Herria.

## Danza (sin especialidad)

Las clases de danza contemplan ejercicios de calentamiento, colocación postural, de elasticidad, de un trabajo muscular equilibrado, ayudan a ganar autoestima, agilidad de movimientos y el equilibrio con el aprendizaje de diferentes y variadas danzas

## Actividades complementarias

Salidas de uno o varios días, intercambios con otros centros o agrupaciones, conciertos y actuaciones públicas, asistencia a conciertos o espectáculos, participación en talleres o masterclasses, etc.

## 02. 02.

# EMANALDIAK HIRIAREN KULTUR BIZITZAN INPLIKAZIOA LORTZEKO / ACTUACIONES Y ACTIVIDADES PARA LOGRAR IMPLICACIÓN EN LA VIDA CULTURAL DE LA CIUDAD

### Ikasleen barne emanaldiak

Gure ikasleek elkarlanean jarduten dute hiriko beste erakunde batzuekin eta toki finko bat irabazi dute hiriko zein kanpoko zenbait kultur jarduera eta ekitalditan:

### Ikasleen emanaldi publikoak

### Bestelako emanaldi eta jarduerak

- Kontzertuak zaharren egoitzetan
- Kontzertuak auzoetako zenbait Kultur Etxetan.
- Kontzertuak Udalbatza Aretoan
- Kaldereroetan parte hartzea
- Danborradekin elkarlana
- Beste Musika Eskolek antolatutako Topaketetan parte hartzea
- Olatu Talka Jaialdia
- Musikaldi Jaialdia
- Kalejirak
- Emanaldi sozialak
- Txistularien protokolo emanaldiak
- Liburutegiko ipuin / bideoren ordua
- Gipuzkoako Dantza Profesionalen elkartearekien egindako jarduerak: Kontxako Barandilla, Dantza Kalean...
- Museoen nazioarteko eguna
- Hiesaren aurkako eguna

### Udalaren Txistulari Taldearen emanaldiak

Herri musikaren profesionalen talde honek hirian sortzen diren arlo horretako beharrei edo hiriari komeni zaionari erantzutea du eginkizun nagusi. Behar horiek Alkatetzak  eta udaleko sailek (Kultura, Gizarte Zerbitzuak, Mugikortasuna...) edo  herri giroko elkarteek eta kultur taldeek agertuko dituzte eskuarki.

### Actuaciones internas del alumnado

Nuestro alumnado colabora con otras entidades de la ciudad y se ha ganado un espacio fijo en actividades y eventos culturales de la ciudad y fuera de ella:

### Actuaciones públicas del alumnado

### Otras actuaciones y actividades

- Conciertos en residencias de mayores
- Conciertos en las distintas Casas de Cultura de los barrios
- Conciertos en el Salón de Plenos del Ayuntamiento
- Participación en Caldereros
- Colaboración con Tamborradas
- Participación en las distintas Topaketas organizadas por otras Escuelas de Música
- Festival Olatu Talka
- Festival Musikaldi
- Pasacalles
- Actuaciones sociales
- Actuaciones protocolarias de los Txistularis
- La hora del cuento / del video de la Biblioteca
- Actividades realizadas con la Asociación de profesionales de Danza de Gipuzkoa: Barra de la Concha, Dantza Kalean...
- Día internacional de los museos
- Día en contra del Sida



### Actuaciones Banda Municipal de Txistularis

Es una agrupación de profesionales de la de música tradicional cuya tarea consiste en responder a las necesidades musicales de este ámbito que se generen o convengan a la ciudad, manifestadas por las peticiones de la Alcaldía de la misma, los diferentes departamentos municipales (Cultura, Servicios Sociales, Movilidad...) o las agrupaciones populares y culturales.

# 02. 03.

# BESTELAKO ZERBITZUAK / OTROS SERVICIOS



## Administrazioa: Informazioa, orientazioa eta aholkularitza

Honako arloei buruzko informazio argia eta zehatza, harrera hurbil eta atseginarekin:

- Eskaintzen den hezkuntzari buruzko informazioa: mailak, egutegia, ordutegiak...
- Ordaintzeko erak eta dirulaguntzak, prezio publiko sozialak.
- Matrikulak bideratzea.
- Burututako ikasketen ziurtagiriak egitea

## Liburutegia

### AURREZ AURREKO ETA LINEAKO ZERBITZUAK

- Informazioa
- Mailegua
- Fonoteka
- Hemeroteka
- Erabilera publikoko ordenagailuen eremua
- Pianoa
- WiFia
- Kexak eta iradokizunak
- Harremanetarako

### LIBURUTEGI LANKIDETZAKO ZERBITZUAK

- Liburutegien arteko mailegua.
- Galderak egiteko zerbitzua.

## Ikasteko, entseguetarako edo beste jardueretarako gelen mailegua

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolak prezio publikoak ezartzen ditu ikasgelak alokatzeko. Hartara, ikasteko edo entseguetarako gela egokiak eskaintzen dizkie herritarrei. Era berean, bere egoitza beste erakundeei uzten die ikastaroak edo bestelako jarduerak bertan egin ditzaten.

## Instrumentu mailegua

Musika-tresnen ikasturterako mailegua baliabide ekonomiko mugatuak dituzten ikasleentzat. Musika-tresnen ikasturterako mailegua Eskolak zehaztutako lehentasunezko espezialitateetan.

Entsegu eta emanaldietarako mailegu puntualak.

## Administración: Información, orientación y asesoramiento

Información clara y detallada, a través de un trato cercano y amable, sobre:

- La oferta educativa del centro: niveles, calendarios, horarios...
- Formas de pago, subvenciones, precios públicos sociales
- Tramitación de matrículas
- Expedición de certificados de los estudios cursados

## Biblioteca

### SERVICIOS PRESENCIALES Y ONLINE

- Información
- Préstamo
- Fonoteca
- Hemeroteca
- Zona de ordenadores de uso público
- Piano
- Wi-fi
- Quejas y sugerencias
- Contacto

### SERVICIOS DE COOPERACION BIBLIOTECARIA

- Préstamo interbibliotecario.
- Servicio "Pregunte.

## Préstamo de aulas para estudio, ensayos u otras actividades.

La Escuela Municipal de Música y Danza de Donostia / San Sebastián dispone de unos precios públicos para el alquiler de su aulario, permitiendo así a la ciudadanía espacios acondicionados para el estudio y ensayos. Así mismo, presta su sede a otras organizaciones para que lleven a cabo cursos u otras actividades.

## Préstamo de instrumentos

Préstamo para el curso escolar de instrumentos para el alumnado con recursos económicos limitados. Préstamo para el curso escolar de instrumentos en especialidades preferentes para la Escuela.

Préstamos de carácter puntual para ensayos o actuaciones.



# 03.
# ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK
# DERECHOS Y OBLIGACIONES DE LAS PERSONAS USUARIAS

## ERABILTZAILEEN ESKUBIDEAK

Eskolako ikasleek honako eskubide hauek izango dituzte:

1. Kalitateko irakaskuntza jasotzea eta eskolan helburu hori lortzeko dauden bitartekoak erabiltzea.
2. Matrikulatu aurretik Eskolaren Hezkuntza Proiektuaren (EHP), Antolamendu eta Funtzionamendu Araudiaren (AFA), Eskolaren Urteko Kudeaketa Planaren (UKP) eta ikasi nahi dituzten gaien gaineko jakingarrien (ordutegiak, ikasketa programak eta abar) argibideak jasotzea.
3. Pertsonaren osotasun fisikoa, psikikoa, morala eta duintasun moralarenganako errespetua jasotzea, inondik inora tratu txar edo itsusgarririk izan gabe, ezta tratu txar fisiko edo moralik dakarren zigorrik jaso ere.
4. Eskola etekina objektibotasunez baloratzea.
5. Edozein ekimen, iradokizun eta erreklamazio mota egin ahal izatea, iradokizun postontzia, tutorearekin edo Egoitzako Pedagogia Zuzendariarekin bilkurak, Gurasoen eta Ikasleen Elkarteak, Eskola Kontseilua eta abar erabiliz.
6. Xedaturiko eskola ordutegia errespetatzea eta irakaskuntza bertan behera utzi edo aldatuz gero, gutxienez ere bi egun lehenago jakinaraztea, ezinbestekorik gertatu ezean. Nolanahi ere den, Eskolak ikasturteko 30 saio ematea bermatuko du astean behin ematen diren irakasgaietan, eta kopuru proportzionalean bestelako maiztasunarekin ematen diren irakasgaietan. Dena delakoagatik halako egun jakin batzuetan eskolara ikasle gutxi etorri arren, Musika Eskolak eta irakasleek, halere, eskolak eman beharko dituzte.
7. Irakasleen eskola saioen eta tutoretzaren orduak ezagutzea.
8. Baldintza egokietan ikastea.
9. Irakasgai eta irakaskuntza mailetara sartzeko aukera berdintasuna, mugakizun bakarrak etekina eta ikasteko gaitasuna izanik.
10. Aldian-aldian norberaren ikasketen bilakaeraren gaineko argibideak jasotzea.
11. Erabiltzailea era egoki, atsegin eta profesional batean artatzea.
12. Eskolarekin ahozko eta/edo idatzizko harremana euskaraz edo gaztelaniaz izatea. Eskolako edozein bileratan euskaraz zein gaztelaniaz jardutea.

## DERECHOS DE LAS PERSONAS USUARIAS

El alumnado del centro tendrá derecho a:

1. Recibir una enseñanza de calidad y a utilizar los medios materiales que para dicha finalidad se encuentren en el centro.
2. Recibir información, antes de la matriculación, del Proyecto Educativo del Centro (PEC), del Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF), del Plan de Gestión Anual (PGA) así como de todos los extremos concernientes a las materias que desee cursar (horarios, programas de estudio etc.).
3. Respeto a su integridad física, psíquica, moral y en su dignidad personal, no pudiendo ser objeto, en ningún caso, de tratos vejatorios o degradantes, ni de sanciones que impliquen maltrato físico o moral.
4. Que su rendimiento escolar sea valorado con objetividad.
5. Formular todo tipo de iniciativas, sugerencias y reclamaciones por medio del buzón de sugerencias, reuniones con la persona tutora o la Dirección Pedagógica de Sede, Asociaciones de Padres y Madres y del Alumnado, Consejo Escolar, etc.
6. Que se respete el horario académico establecido y, en los supuestos de suspensión o cambios de la actividad docente, a que se le notifique con una antelación mínima de dos días, salvo supuestos de fuerza mayor. En cualquier caso, la Escuela garantizará la impartición de 30 sesiones por curso escolar en las asignaturas que se impartan una vez por semana y el número proporcional en aquellas que tengan otra periodicidad. El hecho de que, por unas razones u otras, asista un pequeño número de alumnos o alumnas en determinados días no exime a la Escuela de Música y al profesorado de impartir esas clases.
7. Conocer el horario de clase y de tutorías de sus profesores y profesoras.
8. Que su actividad académica se desarrolle en las debidas condiciones.
9. Tener las mismas oportunidades de acceso a las asignaturas y a los distintos niveles de enseñanza, sin más limitaciones que las derivadas de su aprovechamiento o de sus aptitudes para el estudio.
10. Recibir información regularmente sobre la evolución de sus estudios.
11. Atender a la persona usuaria de forma correcta, amable y profesional.
12. Mantener relaciones orales y/o escritas con la Escuela en euskera o en castellano. Intervenir en euskera o en castellano en cualquier reunión celebrada en la Escuela.

## IKASLEEN BETEBEHARRAK

1. Eskolaren araudia onartzea eta betetzea.
2. Eskola komunitateko gainerako kideen eskubideak eta askatasunak errespetatzea.
3. Eskolak xedatutako epeetan tasak eta prezio publikoak behar bezala ordainduta edukitzea. Eskolak onartutako edozein prezio publiko (matrikula, hileko kuota, material, etab.) ez ordaintzeak, Eskolako ikasle izateari uztea ekar dezake.
4. Helbide edo beste datu pertsonalen aldaketen berri ematea.
5. Irakasleak Eskolaren ohiko jardueran eragina izan dezakeen ezein gorabeheren jakitun jartzea.
6. Zentroaren ondasun higiezinak, instalazioak eta materiala behar bezala erabiltzea, eta behar bezala ez erabiltzearen ondorioz egindako kalteak konponduko ditu eta halakoen erantzukizuna izango du.
7. Onartzea Eskolak ikus-entzunezko grabazioak egitea berak antolatzen dituen ekitaldi publikoetan, berak erabiltzeko edo bere buruaren aurkezpenak egiteko. Ikasleek ez dute horren truke ezeren diru ordainik jasotzeko eskubiderik izango.
8. Ikasleen oinarrizko betebeharra da ikastea, eta honako obligazio hauek ditu muintzat:
   a. Matrikula egindako irakasgaietarako eskola saioetan eta partaide den taldeen entseguetan hutsik ez egitea eta ezarritako ordutegiak betetzea.
   b. Ikasteko behar beste denbora ematea eta lan egitea,  eta hartutako eskolak behar bezala aprobetxatzen dituztela erakustea.
   c. Hartutako eskolak behar bezala aprobetxatzen ez dituela egiaztatuz gero, ikasleak galdu ahal izango du matrikula berritzeko eskubidea.

## OBLIGACIONES DEL ALUMNADO.

1. Aceptar y cumplir la normativa del Centro.
2. Respetar el ejercicio de los derechos y libertades del resto de las personas que componen la comunidad educativa.
3. Abonar en el plazo marcado por el Centro, los precios públicos correspondientes. El impago de cualquiera de los precios públicos aprobados por la Escuela (matrícula, mensualidad, material, etc.) podrá conllevar la baja como alumno o alumna en la Escuela.
4. Comunicar los cambios de domicilio y demás datos personales.
5. Comunicar al profesorado de cualquier circunstancia que pueda afectar al normal desarrollo de su actividad en el Centro.
6. Respetar y utilizar correctamente los bienes, instalaciones y el material del Centro, reparando y respondiendo por los daños que causen por uso indebido de los mismos.
7. Aceptar que la Escuela realice grabaciones audiovisuales en los actos públicos que organice, para uso propio, así como para su autorrepresentación. Por ello, el alumnado no tendrá derecho a compensación económica alguna.
8 .El estudio constituye un deber básico del alumnado que se concreta en las obligaciones siguientes:
   a. Asistir puntualmente a las clases de las asignaturas que cursen así como a los ensayos de las agrupaciones o conjuntos en los que participe y respetar los horarios establecidos.
   b. Dedicar al estudio el tiempo y la dedicación que éste requiere, acreditando el buen aprovechamiento de las enseñanzas recibidas.
   c. En caso de constatarse una notoria falta de aprovechamiento de las enseñanzas recibidas, un alumno o alumna podrá perder su derecho a la renovación de matrícula.

# 04.
# ERABILTZAILEEN LANKIDETZA ETA PARTE HARTZEA
# FORMAS DE PARTICIPACIÓN Y COLABORACIÓN CIUDADANA

Donostiako Udalaren Musika eta Dantza Eskolako erabiltzaileek zerbitzuaren hobekuntzan parte hartu ahal izango dute, honako hauen bidez:

- Antolamendu eta Funtzionamendu Araudian (AFA) zehaztutako parte hartze organoak: Eskola Kontseilua, Ikasleen arduradunen Batzarra eta elkarteak, Ikasleen Batzarra eta elkarteak eta Jarduerako ordezkariak.
- IRADOKIZUNAK, KEXAK ETA, ERREKLAMAZIOAK edozein momentutan egitea, bai eskolako idazkaritzan aurkeztuz, bai honako helbide elektroniko honen bitartez: INFO@donostiaeskola.eus. Eskolak iradokizunak, kexak, erreklamazioak eta eskaerak gehienez 15 eguneko epean erantzungo ditu.
- Elkarrizketak zerbitzuen zuzendaritzarekin eta kudeatzailearekin, horretarako xedaturiko ordutegietan
- GOGOBETETZE INKESTETAN (ikasleak eta familiak) parte hartzea. Inkesten emaitzak korreo-elektronikoa eman diguten ikasle eta familiei bide horren bitartez bidaliko zaizkie eta, bestalde, web orrian eta iragarki taulan argitaratuko dira.

Las personas interesadas en colaborar en la mejora de los diferentes servicios de la Escuela de Municipal de Música y Danza de San Sebastián lo podrán hacer a través de:

- Los órganos de participación establecidos en el Reglamento de Organización y Funcionamiento (ROF): Consejo Escolar. la Asamblea y asociaciones de personas responsables del alumnado, la Asamblea del alumnado y los y las Delegadas de actividad.
- La formulación de SUGERENCIAS, QUEJAS Y RECLAMACIONES en cualquier momento, bien presentándolas en la secretaría del centro o enviándolas a través del correo electrónico a la siguiente dirección: INFO@donostiaeskola.eus. Desde el centro se responderá a las quejas, sugerencias y reclamaciones en un plazo máximo de 15 días.
- Entrevistas con la Dirección de los servicios y gerencia en los horarios establecidos.
- La participación en las ENCUESTAS DE SATISFACCIÓN (alumnado y familias). Los resultados de las encuestas se enviarán por correo electrónico a todos los alumnos y familias que nos hayan facilitado su dirección de correo electrónico y se publicarán en la web y en el tablón de anuncios del centro.



# 05.

# INDARREAN DAUDEN ARAUAK

# NORMATIVA REGULADORA

- 2/2006 Lege Organikoa, maiatzaren 3koa, Hezkuntzari buruzkoa.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
- 0/1982 Legea, azaroaren 24koa, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa.
- 11/2007 Legea, urriaren 26koa, Euskadiko liburutegiei buruzkoa.
- 289/1992 Dekretua, urriaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoan «musika-eskola» direlako arautu gabeko berariazko musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituena.
- Hezkuntza artistikorako ibilbide orria, Hezkuntza Artistikoari buruzko Mundu Konferentzia (UNESCO).
- Liburutegi publikoen zerbitzua garatzeko IFLA/UNESCO jarraibideak.
- Euskararen Erabilera Normalizatzeko 2018-2022 aldirako VI. Plana.
- Musika eta Dantza Eskola toki erakunde autonomoaren estatutuak.
- Udal Musika eta Dantza Eskolaren Antolamendu eta Funtzionamendu Araudia (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala, 2018ko maiatzaren 28koa).
- Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua (IHP, 2019).
- 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, Europako Parlamentu eta Kontseiluarena, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez.

- Ley Orgánica 2/2006, de 3 de mayo, de Educación.
- Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi.
- Ley 10/1982, de 24 de noviembre, básica de normalización del uso del Euskera
- Ley 11/2007, de 26 de octubre, de Bibliotecas de Euskadi.
- DECRETO 289/1992, de 27 de octubre, por el que se regulan las normas básicas por las que se regirán la creación y funcionamiento de los centros de enseñanza musical específica, no reglada, Escuelas de Música, en la Comunidad Autónoma de Euskadi
- Hoja de Ruta para la Educación Artística Conferencia Mundial sobre la Educación Artística (UNESCO)
- Directrices IFLA/UNESCO para el desarrollo del servicio de bibliotecas públicas
- 6. Plan de Normalización del Uso del Euskara 2018-2022
- Estatutos del Organismo Autónomo Local "Escuela de Música y Danza"
- Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Escuela Municipal de Música y Danza (BOG de 28 de mayo de 2018)
- Proyecto Educativo de Centro (PEC 2019)
- Reglamento (UE) 2016/679 del Parlamento Europeo y Consejo, de 27 de abril de 2016, relativo a la protección de las personas físicas en lo que respecta al tratamiento de datos personales

# 06.

# ERABILTZAILEEKIN HARTZEN DIREN KALITATEZKO KONPROMISOAK

## COMPROMISOS DE CALIDAD RECOGIDOS CON LAS PERSONAS USUARIAS

| KONPROMISOAK | ADIERAZLEAK ( SEXUAREN, ADINAREN EDO ZERBITZUEN ARABERA BEREIZITA) | HELBURUA |
|---|---|---|
| • Bezeroa era egokian, atseginean eta profesionalean erantzun eta maila, ordutegi, matrikulazio, prezio sozialak, laguntzak eta abarrei buruzko informazio argia eta zehatza eman. | • Ikasle eta familien gogobetetze maila administrazioan eta zerbitzuetan jasotako arretari dagokionez. | • 10en gainean 7 baino gehiagoko batezbestekoa. |
| • Eskolak Eskolaren Hezkuntza Proiektuan jasotako denboran eta moduan eman. | • Ikasle eta familien gogobetetze maila "bakoitzaren aukerei egokitutako irakaskuntzak jasotzea" atalean. | • 10en gainean 7 baino gehiagoko batezbestekoa. |
| • Langile profesionalak, motibatuta eta etengabeko prestakuntzan eduki. | • Ikasle eta familien gogobetetze maila irakasleekiko. | • 10en gainean 7 baino gehiagoko batezbestekoa |
| • Eskolan I. maila burutzen duen ikasle orori II. mailan plaza bat eskaintzea bermatu. | • Matrikulazio datuak. | • I. mailako ikasleen %100ek eskuratzen dute plaza II. mailan. |
| • Aisialdirako edo profesionaltasunerako orientazioa eman, ikasleen interesen arabera erabakiak hartzeko askatasuna bermatuz. | • Ikasle eta familien gogobetetze maila jasotako orientazio, informazio eta tutoretza atalean. | • 10en gainean 7 baino gehiagoko batezbestekoa. |
| • Eskolaren zerbitzuaren funtzionamenduari begira iristen den edozein kexa, ohar edo iradokizuni erantzuna eman, beti 15 eguneko epea gainditu gabe. | • Jasotzen diren kexa eta iradokizunen %100 erantzun. | • 7 egunetatik beherako batezbestekoa erantzun-epean. |
| • Kultura musikalaren zabalpenerako proiektuetan eragile biziak izan. Horretarako, ikasturtean Eskolak 30 ekintza gutxienez antolatuko du eta Txistulari taldeak 80 ekintza. | • Eskolak, Txistulari taldeak eta beste erakundeekin elkarlanean antolatutako kontzertu eta jarduera kopurua. | • Eskolaren 30 musika emanaldi publiko.<br>• Txistulari Taldearen 80 emanaldi. |
| • Ikasteko gelak utzi, Eskolak ematen dituen zerbitzuetan eragozpenak sortzen ez baditu. | • Jasotako eta kudeatutako gela eskaeren kopurua. | • Jasotzen diren gela eskaeren %100 kudeatuta. |
| • Euskal musika zabadu eta bere garapen berritzailearen alde egin. | • Euskal musikarekin eskainitako emanaldi kopurua. | • Emanaldien %75 euskal musikarekin. |

| COMPROMISOS | INDICADORES SEGREGADOS POR SEXO, EDAD Y SERVICIOS | OBJETIVO |
|---|---|---|
| · Atender a la persona usuaria de forma correcta, amable y profesional, ofreciéndole información detallada referente a niveles, horarios, matriculación, precios sociales y ayudas. | · Encuesta con puntuación sobre el grado de satisfacción del alumnado y familias con respecto al trato recibido en administración y servicios. | · media superior a 7 sobre 10 |
| · Impartir las clases en el tiempo y modo que figura en el Proyecto Educativo del Centro. | · Encuesta con puntuación sobre el grado de satisfacción del alumnado y familias de escuela de música con respecto a la adecuación de las enseñanzas a las necesidades y expectativas del alumnado. | · media superior a 7 sobre 10 |
| · Disponer de personal profesional, motivado y en continua formación. | · Encuesta con puntuación sobre el grado de satisfacción del alumnado y familias de escuela de música con respecto al profesorado. | · media superior a 7 sobre 10 |
| · Garantizar una plaza en nivel II a todo el alumnado que finaliza el nivel I en la Escuela | · Datos de matriculación. | · 100% del alumnado de nivel I obtiene plaza en nivel II. |
| · Proporcionar orientación, vocacional o profesional, que asegure la libertad de decisión del alumnado de acuerdo con sus intereses. | · Encuesta con puntuación sobre el grado de satisfacción del alumnado y familias de escuela de música con respecto a la información, tutoría y orientación recibida. | · media superior a 7 sobre 10 |
| · Atender cualquier queja, observación, o sugerencia que nos haga llegar sobre el funcionamiento del servicio del Centro, siendo respondida siempre antes de 15 días tras haberla recibido. | · 100% de "Quejas y Sugerencias" respondidas | · media inferior a 7 días en el plazo de respuesta |
| · Ser agentes activos en proyectos diseñados para la difusión de la cultura musical entre la ciudadanía, organizando al menos 30 actividades públicas de la Escuela y 80 de la Agrupación de Txistularis a lo largo de todo el año. | · Número de actividades y conciertos organizados por la escuela, por la banda municipal de txistularis y en colaboración con otras instituciones. | · 30 actividades musicales públicas de la Escuela<br>· 80 Actuaciones de la Banda de Txistularis |
| · Facilitar aulas de estudio siempre que no interfiera en los servicios que presta la escuela | · Número de peticiones de aula tramitadas. | · 100% de peticiones de aula tramitadas. |
| · Difundir la música vasca y trabajar para su desarrollo renovador. | · Número de actuaciones ofrecidas con música vasca. | · 75% de actuaciones con música vasca. |



# 07.
# HELBIDEAK, HARREMANA ETA INSTALAZIOAK
## DIRECCIONES, CONTACTO E INSTALACIONES






### ATOTXA: EGOITZA NAGUSIA / SEDE PRINCIPAL
Atotxako Zelaia plaza, 3
20012 Donostia-San Sebastián



### DANTZAREN EGOITZA / SEDE
Nestor Basterretxea Plaza



### HERRERA
Herrera ikastetxea
Ederrena kalea 21



### TXISTULARIEN EGOITZA
Tel: 943428909
info@donostiaeskola.eus
Konstituzio plaza, 5
20003 Donostia-San Sebastián

## GELAK HIRIKO AUZOETAN / AULAS DE BARRIO



### AIETE
Aiete Ikastetxea: Arostegi kalea, 1



### ALTZA
Casares-Tomasene Kultur Etxean: Darieta bidea, 1



### ANTIGUA
Antiguako Auzo Gela: Txalupagillene enparantza, 4



### AÑORGA
Amassorrain Ikastola: Añorga Hiribidea, 27



### BIDEBIETA
CEP Mendiola LHI: Serapio Mujika, 16



### INTXAURRONDO
Intxaurrondoko Gizarte Etxean: Felix Gabilondo plaza, 1



### SALABERRIA
CEP Amara Berri LHI-SALABERRIA: José María Salaberría Kalea, 22



### LARRAMENDI
CEP Amara Berri LHI-URBIETA: Urbieta, 38



### MARTUTENE
CEP Arantzazuko Ama: Martutene pasalekua, 48



### RIBERAS
CEP Ikasbide Ikastola: Pablo Gorosabel, 1

## UDALAREN MUSIKA ETA DANTZA ESKOLA

**Atotxako Zelaia plaza, 3**
**20012 Donostia-San Sebastián**

Tel: **943297830** / Faxa: **943297831**
**info@donostiaeskola.eus**
**www.donostiaeskola.eus**

**Administrazio izapideak egin nahi dituzten herritarrak artatzeko ordutegia** / Horario de atención al público para gestiones administrativas:

**Astelehenetik ostiralera 9:30-13:30**
**Astelehenetik ostegunera 16:00-18:00**
Lunes a viernes de 9:30-13:30
Lunes a jueves de 16:00-18:00